

## MARRAZKIAK

Ane naiz eta anai bat daukat Aitor izenekoa baina beti borrokatzen ibiltzen ginen bata besteari gauzak esaten. Egun batean amak afaldu gabe zigortu gintuen, bakoitza bere logelara joan zen eta ateak itsi genituen. Nik lo hartu nuenean ametsetan hasi nintzen.

Aitorrek marraztu egin ninduen eta lore polit bat nintzen, bakarrik nengoen eta Aitorri nire lagunak marrazteko eskatu nion. Aitorrek nire lagunak marraztu zituen, baina ez genekien zertan jolastu, izan ere, ez zegoen ezer jolasteko, gu bakarrik geunden eta Aitorri jolasteko zerbait margotzeko eskatu genion.

Aitorrek futbol-zelaia, saskibaloi-zelaia eta igerilekua marraztu zizkigun. Saskibaloi jolasten hasi ginen, baina saskiak oso altuak ziren eta ez zen inor baloia sartzera iristen eta orduan, futbole jolasten hasi ginen. Futbole asko jolastu genuen eta izerdi-patsetan geundenean igerilekura joatea pentsatu genuen.

Arropak kendu genituen eta igerilekura sartu ginen. Nekatzen hasiak ginenean, Aitorrek marrazo bat marraztu zuen bera eta ni gaizki moldatzen ginelako eta denok igerian hasi ginen baina marrazoa gu baina azkarragoa zen eta Irene eta ni irentsi gintuen.

Dena oso beltz zegoen barruan eta linternarekin aurrera jarraitu genuen. Irene eta nik, gure lagunak kezkatuta egongo zirela pentsatu eta ateratzen saiatu ginen, baina ezin genuen kanpora atera, orduan negarrez hasi ginen.

Linternaren pilak bukatzen ari zirela esan nion Ireneri eta Irenek bere poltsa gustukoena atera zuen baina ez zidan utzi ukitzen bere aitonak oparitu ziolako. Irene eta ni, bakarrik geundenez, marrazoaren barruan, marrazoak tragatzen zituen arrainez baliatzen ginen elikatzeke. Irenek eta nik hainbeste arrain janda arrain bihurtuko ginela pentsatu genuen eta bi egunetan behin arraina jatea erabaki genuen.

Irene eta ni sekretuak kontatzen hasi ginen baina sekretu guztiak badakizkigu eta orduan aspertu egin ginen sekretuak kontatzen.

Marrazoak aste bat zeraman ezer jan gabe eta hil egingo ginela pentsatu genuen eta berriro negarrez hasi ginen. Gure lagunak beti Aitorrekin egoten ziren marrazoa borrazteko esaktuz, eta Aitorrek azkenean ezeztekoa hartu eta marrazoa ezeztu zuen.

Gu atera ginenean lagunak ikusi genituen eta oso pozik jarri ginen lagunak ikusi genituelako eta hainbeste arrain jaten, ez ginelako arrain bihurtuko, baina gaua zen eta Aitorren amak ohera joateko esan zion Aitorri eta guri oheak marraztu ondoren ohera joan zen lo egitera.

Guk hitz egiten jarraitu genuen, oso berandu oheratu ginen, baina zurrungak egiten genituen eta Aitor esnatu genuen, orduan Aitorrek ezeztekoa hartu eta ezeztu egin genituen.

Gero ohera joan zen eta berriro lo hartu zuen, orduan esnatu egin ninduen amak eskolara joateko eta nik amari kontatu ondoren Aitorreri ez burlatzea eta ez jotzea erabaki nuen, ama eta aita oso pozik jarri ziren. Horregatik zinera joan eta jatetxe batera joan nahi genuen esan ziguten eta guk baietz esan genien baina ez genekien zein pelikula jarri Aitorrek bat nahi zuelako eta nik beste bat baina Aitorrek txikiagoa nintzela esan eta nik aukeratzeko esan zidan eta orduan "Sky high una escuela de altos vuelos" aukeratu nuen eta ikusi egin genuen.

